

MIKELDI PÉREZ URKIJO

2014.05.20 - 2014.07.20

HURRENGO ERAKUSKETAK

barriek 2014. BFaren sorkuntza artistikorako beka.

IKER SERRANO uztailaren 22tik abuztuaren 31ra

ALVARO GIL irailaren 2tik urriaren 12ra

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



Euskera

MIKELDI PÉREZ URKIJO

andamiaje

2014ko maiatzaren 20tik uztailaren 20ra

- Rekalde Aretoak **Mikeldi Pérez Urkijoren** (Getxo, 1983) erakusketa aurkeztu du Kabinete Abstraktuan. Erakusketa **barriek 2014** programaren barruan sartuta dago, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren sorkuntza artistikorako beka jasotzen dituzten artisten aukeraketa bat erakusteko antolatzen den programan.
- Mikeldi Sopelan (Bizkaia) bizi da, eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziatu zen UPV/EHUn, 2008. urtean. Harrezkero, sorkuntza artistikorako beka eta arte plastikoetako sariak jaso ditu hainbat aldiz, esate baterako, *Ikusmen Arteetako Injuve Sorkuntza Saria* (2010), Bilbao Arte Fundazioaren *Egoitza Beka* (2010), *Ertibil-Bizkaia Hirugarren Saria* (2011) eta *Bizkaiko Foru Aldundiaren Sorkuntza Artistikorako Beka* (2012-2013).
- Bere lanean, irudi pikturikoaren eta bere euskarriaren artean dauden harremanak ikertzen ditu, eta materialen eta espazioaren ezaugarriak aztertzen ditu, bitarteko gailuen eta sortzen dituzten irudien bidez. Rekalde Aretoan, aldamia da murreren gainean jarritako irudiak sortzen dituena.
- Oraintsu, Santiago de Compostelako Centro Galego de Arte Contemporáneoan dagoen *27 Negros* talde-erakusketan hartu du parte; hor, 27 artistek obra korala egin dute, Misha Bies Golas artistak proposatuta, hain zuzen, 20 x 20 cm-ko 27 monokromo beltz egin dituzte.

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

ERAKUSKETA

Proiektu hau lantzen hasi nintzenean, tresna bat aurkitu behar nuen teknikaz dudana ezaguera ona utzi, eta hortik erabat ihes egin ahal izateko. Orduan, su-itzalgailu bat iritsi zen nire eskuetara. Banekien, pinturaz beteta zegoen gailu hori margotzeko erabil zitekeela, marra lodiak egin zitzaizkela segundo batzuetan. Hura izango zen nire lehenengo tresna.

Nire gogoaren kontra, baina, teknika berri horrek gaintu egiten ninduen. Oreka aurkitu behar nuen, egitura bat indarrez jarri eta mugarritu behar nuen, hura nire kontrolatik kanpo baitzegoen erabat. Orduan, ustekabean, aldamiotako bat agertu zitzaidan bidean, eta berehala ohartu nintzen horixe zela bilatzen ari nintzena. Itxuraz, ondo ibiltzen zen elkarketa hura, hau da, aldamiotako egitura gida gisa hartuta lortutako marrazki geometrikoak eta paretan bortxaz zipritindutako margoa. Eta harreman hura interesgarria zela iruditu zitzaidan: sortutako irudia, eta urrutitik irudia itxuratu zuen euskarri fisikoa, berarengandik bereizitako objektu gisa.

Geroago, ez dut gogoan zerk eraman ninduen horretara, 'andamio' izenaren definizioa irakurri nuen hiztegi batean. Bigarren adiera irakurritako bat zetorren dena: "Eraikuntza intelektuala, politikoa, analitikoa etab. antolatze eta egituratzeko erabiltzen den kanpoko egitura".

Proiektu honen aurretik egin dudana lanean, gehienbat irudi piktorikoaren eta bere euskarri fisikoen artean sortzen den harremana aztertu dut. Nolabait esateko, pieza bateratuak egin arren, bi alderdi hauek bereiz hartu ditut beti: irudia eta arlo eskultorikoa edo materiala. Egituratzeko ahalegina egin dut, irudiak objektu fisikoa ordezkatu ez dezan.

Instalazio honetan, arlo piktorikoaren eta eskultorikoaren arteko harremana ez da aurreko lanekoa bezalakoa. Objektu bananduak dira. Haietako bakoitzak bere irudia eta euskarria ditu, jakina, baina aldamiotako eta horma-irudiaren artean dagoen harremana, formala izateaz gain, egiturazkoa eta banaezina da.

Mikeldi Pérez Urkijo



ARTISTA

www.mikeldi.net

Mikeldi Pérez Urkijo artista (Getxo, 1983) Sopelan bizi da (Bizkaia), eta bertan lan egiten du. 2008. urtean, Arte Ederretan lizentziatu zen UPV/EHUtik. Harrezkero, sorkuntza artistikorako bekak eta arte plastikoetako sariak jaso ditu hainbat aldiz, esate baterako, *Ikusmen Artee-tako Injuve Sorkuntza Saria* (2010), Bilbao Arte Fundazioaren *Egoitza Beka* (2010), *Ertibil-Bizkaia Hirugarren Saria* (2011) eta *Bizkaiko Foru Aldundiaren Sorkuntza Artistikorako Beka* (2012-2013). Azken urteetan, banakako erakusketak jarri ditu Palma Mallorcako Louis 21 galerian (*Neniu Signalo*, 2013), eta Valentziako Paz eta Comedias galerietan (*Hacia el medio*, 2014). Horrez, gain, taldekako erakusketa askotan hartu du parte, hala estatuan nola nazioartean.